

HEZKUNTZA EZ-FORMALA
EDUCACIÓN NO FORMAL



**2018-2019 IKASTURTEKO
HEZKUNTZA
EZ-FORMALEKO
PROGRAMA**



Agurra

Guraso agurgarriok:

Begoñazpi Ikastolako hezkuntza proiektuko ardatzetariko bat, Hezkuntza Ez-Formaleko programa da. Hau, ahal dan neurrian, ikasleek garapen osoa lortu asmoz, Hezkuntza Formalaren osogarri izango da.

Hau dala eta, eskaintza zabal eta anitz honek, batik bat, hizkuntza, kirol, arte eta aisia programak landuko dauz.

Hauxe da 2018-19 ikasturterako prestatu dogun eskaintza.



Aurkibidea

HIZKUNTZA - PROGRAMA	4
INGELESA	4
EUSKERA	5
FRANTSESA	6
BERTSOLARITZA	7
ARTE - PROGRAMA	8
MUSIKA	8
EUSKAL DANTZAK	9
ANTZERKIA	10
KIROL - PROGRAMA	11
PSIKOMOTRIZITATEA	12
HEZIKI / MULTIJOLASAK	12
PATINAJEA	13
DANTZA MODERNOAK	13
SASKIBALOIA	14
FUTBOLA 5	15
XAKEA	16
ESKUPELOTA ETA PALA	16
ESKOLA KIROLEAN IZEN-EMOTEA	17
INFORMAZIO ERABILGARRIA	18
HEZKUNTZA - ZIKLOAK	19



English

HELBURUAK

Jarduera honen helburua ikasleek, euren adinera egokituriko metodologiaz ingelesa ikastea izango da. Jardunean, Hezkuntza Formalaren osagarri eta era atsegina zein erakargarria, ikasleak DBHn First Certificate eta Batxilergoan Advance tituluak ataratea zein Cambridge Language Assessment-eko azterketa ofizialak arrakastaz gainditzeko prestatuko dira.

Ikasturte honetan Hezkuntza Formalean Haur Hezkuntzan lantzen den AMCO metodoa Hezkuntza Ez-Formalean landuko da. Adimen anizkoitzetan oinarrituta dagoen metodo honek garrantzi berezia emongo duetso Haur Hezkuntzan ezinbestekoa den ahozko adierazpenari. Jatorriko hiztunak eta AMCO metodoan adituak diran Hezkuntza Formaleko irakasleak izango dira.

Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailak, Holly Phonics metodologian eta Cambridge Starters tituluari jagokozan eta gax egiten diran kontzeptu zein edukien arteko igarotze-bideak dira.

Lehen hezkuntzan ikasleek, hizkuntzaren arlo guztiak garatuz, Cambridge Young Learners maila prestatuko dabe. Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, ordea, eskakizun maila handiagoa izango da Cambridgeko goi mailako titulu ofizialak arrakastaz lortzeko helburua izango dogu eta. Maila bakoitzeko helburuak eboluzio taulan agertuko dira.

HAUR HEZKUNTZA

4 - 5 urte

AMCO

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. maila

STARTERS
[pre A1]

3. - 4. maila

MOVERS
[A1]

5. - 6. maila

KET
[A2]

JOLLY PHONICS

DBH

1. - 2. maila

PET [B1]

3. - 4. maila

B1+ / B2*

BATXILERGOA

1. - 2. maila

FCE B2*
CAE C1*

INFORMAZIO ERABILGARRIA

TALDEAK

Taldeak zortzi-hamabi ikasleek osotuko dabez.

LH 5. eta 6. mailako zein DBH 1. mailako ikasleek mailaketa frogak egin beharko dabe. Azterketa hau lehen aldiz parte hartzen daben ikasleek be egin beharko dabe. Taldeak, mailaren arabera izango dira.

DBH eta Batxilergoko ikasleek, mailaketa frogak **irailaren 27an eguerdiko 14:00etan banaketa-gelan** egingo dabe. Maila honeetako ikastaroei etxean be lan egin beharko dabe.

LHko mailaketa frogak lehenengo eskola egunean izango dira.

MATERIALA

LH 1. mailatik 4. mailara heldu arte, ikasleek bookletak erabili eta jasoko dabez Ikastolan. Hortik aurrera, liburuak erosi beharko dabez.

Ikasleek gelan, margoak, arkatza eta borragoma dauan estutxea izan beharko dabe

* Ikastaro honek etxean be lan egitea eskatuko dau.



Euskera

HELBURUAK

Begoñazpi Ikastolan, urte bitik aurrera bizkaiera ikasi eta erabiltzeko aukera izanik, ikasleei EGA azterketa be bizkaieraz atarateko aukera emongo deutsegu. Horregaitik, ba, Labayru Fundazioaren azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak eskainiko doguz. Honeexek dira ikastarook: ALFA II, ALFA III eta EGA.

INFORMAZIO ERABILGARRIA

INFORMAZIOA

Lehen aldiz izena emoten daben ikasleek, ikastaroa hasi baino lehen, mailaketa-azterketa egin beharko dabe. Azterketa hau, **irailaren 27an, eguena, eguerdiko 14:00etan**, banaketa-gelan izango da.

Taldea osatzeko, gitxienez, zortzi ikaslek egon beharko dabe.

Ikastaroa gainditzeko, ezinbestekoa da eskoletara joatea eta azken azterketa gainditzea.

MATERIALA

Koaderno eta estutxea.

LIBURUAK

- Bizkaierako Aditza
 - Bizkaierako Deklinabidea.
- (Liburuok ikastaroa hasi orduko erosiko dira)

Ikastaro guztietan GRAMATIKA, AHOZKO ZEIN IDATZIZKO ULERMEN ETA ADIERAZMENA landuko da.

DBH

3. maila

ALFA II

4. maila

ALFA III

BATXILERGOA

1. maila

EGA

2. maila

EGA



Frantsesa*

HELBURUAK

Frantsesaren eskolaz kanpoko eskola, ikasten dagozan hizkuntza honetan alkarri eragitean datza. Ikasleek, taldean lan egiteko, balore zein trebetasunak garatzeko baita autonomia handiagoa erdiesteko be, bakarkako eta parte hartzeko ekintzak egingo dabez. Ikasleak, ikasten daben heinean, irakasteko eta ikasteko prozesu aktiboa sustatuz, protagonista izango dira.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuak ezarritako konpetentziak be landuko dira. Besteak beste, entzumena, irakurmena, ahozko alkarreragina, mintzamina eta idazmina.

INFORMAZIO ERABILGARRIA

AURKEZPENA

DBHn gelan landutakoa barrikusi, garatu eta hobetuko da. Horretarako, irakasleak ikasmaterial berezia prestatuko dau. Batxilergoan, DELF-B1 azterketa prestatuko da. Horretarako eskolak hasten diranean adieraziko dan metodo zehatza erabilko da.

Taldeak 8-12 ikaslekoak izango diranez, ikasleek laguntza eta zuzeneko arreta jasoko dabe.

Talde-lana ez apurtzeko, klaseetara joatea derrigorrezkoa izango da.

DBH

1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
A1.1	A1.2	A2.1	A2.2

BATXILERGOA

1. maila	2. maila
B1	B2.1

* Ikastolan frantsesa ikasten daben ikasleei be zuzendua.



Bertsolaritza

Hizkuntzak garatzeko Hezkuntza Ez-Formaleko jardueren artean, aurten beste zerbitzu bat eskainiko deusuegu: Bertsolaritza. Zerbitzu honek gure ikasleen adierazmen eta hiztegi kompetentzia indartzea lortu nahi dau. LH6 mailako ikasleei eta DBHko 1. mailako ikasleei zuzendua dago. Jarduera honek astean ordu bateko saioa izango dau.

LEHEN HEZKUNTZA

6. maila

BERTSOLARITZA

DBH

1. maila

BERTSOLARITZA



Musika

HELBURUAK

Musika adierazteko guztiok dogu sentitzeko eta entzuteko gaitasuna, hau da, maila desbardinetan bada be garatu eta sustatu behar dan musikaltasuna. Umea lehen aldiz inguruagaz hartu-emonetan jartzen daben entzumen esperientzizei ekiteko, ikasleen garapen integralari aukera emonez, hainbat metodo erabiltzen dabezan musika-eskolak emongo dira.

MAX Y MIA METODOA

Programa honen helburu nagusia, umearen garapenez gain, musika potentzialaren hedapena be bada. Hau, umearen bizitzako unearen arabera, eboluzio-aldietan antolatutako metodoa da.

COMBO

Musika moderno edota orkestran antolaturiko taldeak dira. Honeek, ikasitakoa jolas zein modu dibertigarrian jarriko dabe martxan.

INFORMAZIO ERABILGARRIA

ARAUAK

- Urritik aurrera ezin izango da eskoletan parte hartu.
- Ikasleei emoten jaken materiala, hurrengo hilean kobratuko jake. Material hau bertan landu eta erabiliko denez, Ikastolan geratuko da ikastaroa amaitu arte.
- Prezioan ez da ez materialik ez musika-tresnarik sartuko.

HAUR HEZKUNTZA

Taldeek gehienez hamar ikasle izango dabe.

LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH

- Musika-tresna jotzen aurrera egin eta hobetzeko, etxean astero errepasatu eta ikasi beharko da.
- Garrantzitsua da musika-tresna ekartzea baita klase-orduak behar dan moduan aprobetxatu eta etekina ataratea be.
- Egun eta ordu aldaketa egon daiteke.

HAUR HEZKUNTZA

4 - 5 urte

MAX ETA MIA METODOA

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila	2. maila	3.-4.-5.-6. maila
MAX ETA MIA METODOA	MUSIKA-HIZKUNTZA	MUSIKA-TRESNA
+	+	+
ABESBATZA	ABESBATZA	MUSIKA-HIZKUNTZA
+	+	+
MUSIKA-HIZKUNTZA	BIRAKARIAK	COMBOA

DBH*

Musika Modernoa

MUSIKA-TRESNA
+
COMBOA

Adierazitako prezioan ez da ez musika-tresnarik ez libururik sartuko.

Lehen Hezkuntzan landuko diran musika-tresnak: Zeharkako txirula, klarinetea, saxofoia, txistua, pianoa, biolina, gitarra klasikoa, akordeoia, perkusioa, tronboia eta tronpeta.

DBHn landuko diran musika-tresnak: Bateria, gitarra klasikoa /elektrikoa, baxua, ukelelea, biolina, kantua, teklatura, baxu elektrikoa, audio and home studio eta DJ (talde minimoa beharko da).

Barriak: Max eta Mia metodoa (HHn eta LHn) Comboak (LHn eta DBHn)

* Ikastolatik kanpo musika-tresna ikasten eta maila egokia daben ikasleek, combo ikasteko matrikula egin daikie. Musika-tresna eta combo, banatuta kobratuko dira. Ikasleek, combo, musika-tresna edota biak ikasi daikiez.



ARTE-PROGRAMA

Euskal Dantzak

HELBURUAK

Ikastolako Misioak adierazten dauenez, ezinbestekoa da Euskal Kulturaren hedapena eta zer esanik ez, honen adierazgarri diran Euskal Dantzak. Jarduera honen bidez, ikasleek gure kulturaren eta identitatean sakontzen dabenean, gorputz adierazpena eta erritmoa landuko dabe.

Musikaz eta mugimenduaz garatu eta aztertuko dira emozioen adierazpena eta ikaslearen sentimenduak.

Dantzen bidez, gure identitatea garatuko dogu. Beti be, gure kultura hedatu, ezagutarazi eta aberasteko konpromisoa hartuz.

INFORMAZIO ERABILGARRIA

Dantza-eskoletarako erropa eta zapata erosoak jantzi beharko dira.

Izen-emote kopurua kontuan izanik, ordutegian aldaketak egon daitezke.

JANTZIEI BURUZKO INFORMAZIOA

NESKAK

LEHEN HEZKUNTZA: 1., 2., 3. eta 4. maila

Begoñazpiko jantzia, azpiko gona, ardi-lanazko mediak, eta narruzko abarkak.

Jantzia irailean erosi ahalko da, gitxi gorabehera 75€ balio dau.

LEHEN HEZKUNTZA: 5. eta 6. maila. DBH

Abarkak eta azpiko gona. Jantziak Ikastolak itziko deutsez.

Alardeetan erabili eta gero, buruko zapia eta alkandora garbi bueltatu beharko dabe Ikastolara.

MUTILAK

DANAK

Praka eta alkandora zuria, txapel gorria eta zinta gorridun abarka zuriak.

ALARDEEI BURUZKO INFORMAZIOA

- Idazkaritzan emon beharko dan zirkularra bialduko da.
- Ekitaldietara dantza-jantziak jantzita joan beharko da, salbuespenak salbuespen.
- Dantzariak, alde zurretik baietza emon eta alardeetara joaterik ez badau, twitter edo emailez jakinarazi beharko dau. Alardeetara baietza emon barik joanez gero, ez da dantzatzea bermatuko.
- Ekitaldietara joan baino lehen Ikastolan batuko gara danok (dantzariak, gurasoak eta irakasleak) eroan behar dan materiala eroaten laguntzeko eta taldea batera jaisteko.

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. - 3. - 4. - 5. - 6. maila

EUSKAL DANTZAK

DBH

1. - 2. - 3. - 4. maila

EUSKAL DANTZAK

BATXILERGOA

1. - 2. maila

EUSKAL DANTZAK



ARTE-PROGRAMA

Antzerkia

HELBURUAK

Eskola-adin honetan, antzerkiak onura handiak ekartzen dauz, biziki lagunduko dau eta. Besteak beste, mintzamenean, diskurtso gaitasunean, beldurrak gaintitzen, irudimena eta testuak laburbiltzen eta buruz ikasten. "Sketch" eta antzezlan laburrak landuz, ikasleek onura horreek guztiak jolas eta modu erakargarrian garatuko dabez.

INFORMAZIO ERABILGARRIA

Zikloko talde bi osotuko dira. Talde bakoitzak asko jota, 15 ikasle izango dau.

Plaza edota lekua, izen-emote ordenaren arabera izango da.

Ikasturte amaieran ekitaldi-aretoan egingo dan ikuskizunean, ikasleek urtean landutakoa erakusteko eta gurasoek seme-alabek ikasitakoa ikusteko aukera izango da. Horretarako, ikasleek erabiliko dabezan jantzi eta apaingarriak ekarri beharko dabez.

LEHEN HEZKUNTZA

3. - 4. - 5. - 6. maila

ANTZERKIA INGELESEZ



Kirol-programa

Kirol programaren helburuak honako honeek dira:

- Kirolaren bidez, pertsona moduan garatzeko, adiskidetasuna eta errespetua bezalako baloreetan hezitzea.
- Kirola gozatzeko dala irakastea eta osasunerako dauan garrantzia onartzea.
- Taldekide izatearen garrantzia azpimarratzea eta talde-lana sustatzea.

| HAUR HEZKUNTZA | LEHEN HEZKUNTZA | DBH | BATXILERGOA |
|---------------------|-----------------------------|-------------------|-------------|
| 5 urte | 1. - 2. - 3. - 4. - 5. - 6. | 1. - 2. - 3. - 4. | 1. - 2. |
| PSIMOMOTRIZITATEA | HEZIKI /
MULTIJOLASAK | | |
| PATINAJEA | | | |
| DANTZA MODERNOAK | | | |
| SASKIBALOIA | | SASKIBALOIA* | |
| FUTBOLA 5 | | FUTBOLA 7* | FUTBOLA 11* |
| XAKEA | | | |
| ESKUPILOTA ETA PALA | | | |

* Hitzarmenak.



Psikomotrizitatea [URTARRILETIK AURRERA]

Psikomotrizitatea umeen gaitasunak (inteligentzia, komunikazioa, afektibitatea, soziabilitatea, ikasketa, etab.) mugimenduaren eta egitearen bitartez garatzea helburu dauan hezkuntzari ekiteko modua da.

Taldeen eraketa

Izen-emote kopurua mugatua izango da. Kontuan hartuko da izen-emotearen ordena.

Beharrezko materiala

Entrenatzeko materiala: ariketa fisikoa egiteko jantzi eta zapatila egokiak.

Beste batzuk

- Ekintza urtarriletik aurrera eskainiko da.
- Abenduan ekintza honetan izena emoteko informazioa jasoko dozue.



Heziki / Multijolasak

Programa honek, trebetasun motoreak sustatzeaz gain, etorkizunean egin nahi izango daben edozein kirol egiteko behar dan zenbait ekintza-motor egitea dau helburu. Oinarrizko trebetasun motoreak, joko jolas soziomotoreen bidez landuko dira.

Taldeen eraketa

LHko lehen zikloan, izen-emote kopurua mugatua izango da. Kontuan hartuko da izen-emotearen ordena.

Lehiaketak

Eskola Kirolak antolaturiko hainbat lehiaketatan parte hartuko da.

Beharrezko materiala

- Entrenatzeko materiala: kirola egiteko zapatila eta jantzi egokiak.
- Partidetarako jantzia: Ikastolako kamiseta eta txandala.

Beste batzuk

Eskola Kiroleko lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko daben ikasleek, irailaren 19a baino lehen Eskola Kiroleko web-orrialdean emon behar dabe izena.

Horrez gain, ikasleek karnet-argazkia, erroldatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria ekarri beharko dabe irailaren 28a baino lehen (informazio gehiago, katalogo honen 17. orrialdean).

HAUR HEZKUNTZA

5 urte

PSIKOMOTRIZITATEA

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. maila

3. - 4. - 5. - 6. maila

HEZIKI/MULTIJOLASAK

BANAKAKO ETA
TALDE KIROLAK

DBH

1. - 2. - 3. - 4. maila

BANAKAKO ETA TALDE KIROLAK

BATXILERGOA

1. - 2. maila

BANAKAKO ETA TALDE KIROLAK



Patinajea

HAUR HEZKUNTZA

5 urte

PATINAJEA (Hastapena)

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. maila

PATINAJEA (Hastapena)



Aisialdiko kirol honek, mugimendu eta ariketen bidez, oreka eta armonia uztartzen laguntzen dau.

Informazioa

Kirol honen helburua patinajeari ekitea da.

Taldean eraketa

Izen-emote kopurua mugatua izango da. Kontuan hartuko da izen-emotearen ordena.

Beharrezko materiala

Norbere patinak izateaz gain, kaskoa, belun-babesa, ukondo-babesa eta eskumuturrekoak erabili beharko dira. Gainera, patinajea egiteko jantziak, egokia izan behar dau.



Dantza modernoak

HAUR HEZKUNTZA

5 urte

DANTZA MODERNOAK (Hastapena)

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. maila

DANTZA MODERNOAK
(Hastapena)

3. - 4. - 5. - 6. maila

DANTZA MODERNOAK
(Hobekuntza)

DBH

1. - 2. maila

DANTZA MODERNOAK (Hobekuntza)



Diziplina handiko ariketa hau, musika, erritmo eta ariketa fisikoaren bidez, umeei entretenigarri egingo jake, gorputz komunikazio eta adierazpena bultzatuz.

Taldean eraketa

Izen-emote kopurua mugatua izango da. Kontuan hartuko da izen-emotearen ordena.

Erakustaldiak

Ikasturtean hainbat erakustaldi izango dira Ikastolan; besteak beste, Kirol Astean, gurasoen aurrean eta Ikastolako jaian.

Beharrezko materiala

Entrenatzeko materiala: Dantza egiteko zapatila eta jantzi egokiak.



Saskibaloia

Kooperazio eta aurkakotasun-kirol honek, saskibaloia-aren trebetasun tekniko-taktikak oinarri izanik eta talde-lanaren garrantzia azpimarratuz, trebetasun motoreak garatzea dau helburu.

Taldeen eraketa

- Lehenetasuna, aurreko denboraldiko kirol-taldeek izango dabe, izen-emote kopuruak ahalbidetzen badau, behintzat.
- Libre dagozan plazak emoteko, kontuan izango da izen-emotea noiz egiten dan, hau da, ordena.
- LHko lehen zikloan, izen-emote kopurua mugatua izango danez, kontuan hartuko da izen-emotea noiz egiten dan, hau da, ordena.

Lehiaketak

- LH 1. eta 2. mailan, Saski-Eskola: denboraldian hainbat topaketa izango dira.
- LH 3. eta 4. mailan, 3x3 eta 5x5 Saskibaloia: taldeek Eskola Kirolak antolatutako lehiaketetan parte hartuko dabe.
- LH 5. eta 6. eta DBH 1. eta 2. mailetan, 5x5 Saskibaloia: taldeek Eskola Kirolak antolatutako lehiaketetan parte hartuko dabe.

Beharrezko materiala

- Entrenatzeko materiala: saskibaloian jarduteko zapatila eta jantzi egokiak.
- Partidetarako jantzia: LH 3. mailatik aurrera jantziek 29€ inguru balioko dabe. Jokalarien zenbakiak taldeak egin eta gero adostuko dira.

Hitzarmenak

- DBH 3. mailatik aurrera, Ikastolak saskibaloian jarduteko dauan hitzarmenari esker, jokalariek CD Begoñazpi 86 klubean aukera izango dabe.

Beste batzuk

Eskola Kiroleko lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko daben ikasleek, irailaren 19a baino lehen Eskola Kiroleko web-orrialdean emon behar dabe izena.

Horrez gain, ikasleek karnet-argazkia, erroldatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria ekarri beharko dabe irailaren 28a baino lehen (informazio gehiago, katalogo honen 17. orrialdean).

LEHEN HEZKUNTZA

| 1. - 2. maila | 3. - 4. maila | 5. - 6. maila |
|-----------------|-------------------------|-------------------|
| SASKI
ESKOLA | AURRE-MINI
3X3 / 5X5 | MINIBASKET
5X5 |

DBH

| 1. - 2. maila | 3. - 4. maila |
|-----------------------|-------------------------|
| HAUR KATEGORIA
5X5 | SAKIBALOI
FEDERATUA* |

BATXILERGOA

| 1. - 2. maila |
|----------------------|
| SAKIBALOI FEDERATUA* |



Futbola 5

Kooperazio eta aurkakotasun-kirol honek, futbolaren trebetasun tekniko-taktikak oinarri izanik eta talde-lanaren garrantzia azpimarratuz, trebetasun motoreak garatzea dau helburu.

Taldeen eraketa

- Lehenetasuna, aurreko denboraldiko kirol-taldeek izango dabe, izen-emote kopuruak ahalbidetzen badau, behintzat.
- Libre dagozan plazak emoteko, kontuan izango da izen-emotea noiz egiten dan, hau da, ordena.
- LH 1. mailan, gehienez talde bi egongo dira. Kontuan izango da izen-emotea noiz egiten dan, hau da, ordena.

Lehiaketak

- LHko lehen zikloan, ikasturte hasierako batzarrean zehaztuko da.
- LHko bigarren zikloan, taldeek Eskola Kirolak antolatzen dauzan lehiaketetan parte hartuko dabe.

Beharrezko materiala

- Entrenatzeko materiala: futboleko jarduteko zapatila eta jantzi egokiak.
- Partidarako jantzia: LH 2. mailatik aurrera jantziek 19€ inguru balioko dabe. Jokalarien zenbakiak taldeak egin eta gero adostuko dira.

Hitzarmenak

- LH 5. mailatik aurrera, Ikastolak futboleko dauan hitzarmenari esker, jokalariek UD La Merced klubean aukera izango dabe.

Beste batzuk

Eskola Kiroleko lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko daben ikasleek, irailaren 19a baino lehen Eskola Kiroleko web-orrialdean emon behar dabe izena.

Horrez gain, ikasleek karnet-argazkia, erroldatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria ekarri beharko dabe irailaren 28a baino lehen (informazio gehiago, katalogo honen 17. orrialdean).

LEHEN HEZKUNTZA

| | | |
|----------------------------|----------------------------|-----------------------------|
| 1. - 2. maila
FUTBOLA 5 | 3. - 4. maila
FUTBOLA 5 | 5. - 6. maila
FUTBOLA 7* |
|----------------------------|----------------------------|-----------------------------|

DBH

| |
|--|
| 1. - 2. - 3. - 4. maila
FUTBOLA 11* |
|--|



Xakea

Xakeak zenbait gaitasun intelektual garatzen laguntzen dau: arreta, kontzentrazioa, sintesia, analisisa, arazoaren ebazpena, erabakiak hartzea, memoria, sormena, irudimena, arrazoibide logiko-matematikoa...

Taldearen eraketa

- Aurreko ikasturtean izena emondako taldeek lehentasuna izango dabe.
- Libre dagozan plazak emoteko, kontuan izango da izen-emotea noiz egiten dan, hau da, ordena.
- Taldeak osatzeko orduan, kontuan hartuko dana maila izango da, ez adina.

Lehiaketak

Eskola Kirolak antolatutako banakako eta talde txapelketetan parte hartuko dabe. Eskolarteko txapelketa hiru jardunalditan eta taldekoa jardunaldi bakar batean izaten da. Txapelketak domeka goizetan izaten dira. Txapelketetan parte hartzea hautazkoa izango da. Ikasturte hasierako batzarrean izango dozue barri gehiago.

Beste batzuk

Eskola Kiroleko lehiaketetan lehenengo aldiz parte hartuko daben ikasleek, irailaren 19a baino lehen Eskola Kiroleko web-orrialdean emon behar dabe izena. Horrez gain, ikasleek karnet-argazkia, erroldatzearen fotokopia eta gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria ekarri beharko dabe irailaren 28a baino lehen (informazio gehiago, katalogo honen 17. orrialdean).

LEHEN HEZKUNTZA

3. - 4. maila

XAKEA
(Hastapena)

5. - 6. maila

XAKEA
(Hobekuntza)

DBH

1. - 2. maila

XAKEA (Hobekuntza)



Eskupelota eta pala

Tradizioz egin dan kirol honek, eskupelota eta palaren trebetasun tekniko-taktikoak oinarri dauazala, gaitasun motoreak zein espazialak garatzea dau helburu.

Taldearen eraketa

Izen-emote kopurua mugatua izango da. Kontuan hartuko da izen-emotearen ordena.

Lehiaketak

Ikasturte hasierako batzarrean izango dozue barri gehiago.

Beharrezko materiala

Entrenatzeko materiala: Eskupelota eta palaz jarduteko zapatila eta jantzi egokiak.

LEHEN HEZKUNTZA

1. - 2. - 3. - 4. - 5. - 6. maila

ESKUPELOTA ETA PALA (Hastapena)



KIROL-PROGRAMA

Eskola Kirolean izen-emotea

Eskola Kirolak, Hezkuntzatik Bizkaiko umeei buruzko datuak eskuratu ezin dauazanez, izena emoteko prozesua aldatu egin dau; kirolariaren aitak, amak edo legezko-tutoreak burutu behar dabelarik.

Nork egin behar dau Eskola Kirolean izen-emote prozesua?

- **HEZIKI:** izena emoten daben LH 1. mailako ikasle guztiek eta LH 2. mailako ikasle barriek.
- **SASKIBALOIA, FUTBOLA eta XAKEA:** izena emoten daben LH 3. mailako ikasle guztiek eta lehenengo aldiz Eskola Kiroleko txapelketetan parte hartuko daben ikasleek.
- Gainontzeko kirol ekintzetarako ez da Eskola Kirolean izen-emotea gauzatu behar.

Kirolariari alta emoteko argibideak:


1. Webgune honetan sartu: <http://www.bizkaia.eus/eskolakirola>
2. “**Nire Eskola Kirola**” atalean sartu (ezkerraldean).
3. “0. Eskola Kirolean Alta barria” ataleko “**KIROLARIAREN ALTA**” link-ean sartu (eskuinaldean, laranja).
4. Bertan agertzen diran datuak bete eta datu-lagapena onartzen dozuen laukia markatu.
5. Azkenik, “**GORDE**” sakatu.

Prozesu hau Ikastolako plataforman izena emotegaz batera irailaren 19a baino lehen egitea eskertuko deusuegu. Horren ostean, Ikastolak kirol taldeen izen-emoteak gauzatu behar dauz eta. Kirolaria Eskola Kirolean alta emonda ez badago, ezin izango dogu bere fitxa burutu.


Izen-emote prozesua amaitzeko, irailaren 28a baino lehen Lehen Hezkuntzako idazkaritzan aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Kirolariaren karnet-argazkia.
- Kirolariaren erroldatze-agiriaren fotokopia.
- Gurasoen Eskola Kirola ziurtagiria.

Edozein zalantza izanez gero, Ikastolako kirol arduradunagaz posta elektronikoz zein telefonoz hartu-emonetan jarri.



Karnet-argazkia



Erroldatze-agiriaren
fotokopia



Eskola Kirola
ziurtagiria



Informazio erabilgarria

ENTRENAMENDU-ARAUTEGIA

- Derrigorrezkoa da ekintza bakoitzerako aproposa dan arropa eta kirol materiala erabiltzea. Osterantzean, ikasleak ez dau entrenamenduan edo partidatan parte hartuko.
- Ordutegia errespetatu egin behar da. Era berean, partida edo txapelketa egunetan entrenatzaileak esandako ordua errespetatu egin behar da. Salbuespenik egotekotan, aldez aurretik esan entrenatzaileari.
- Entrenamendu saioen planifikazioa hobetzeko, gaixotasun edo bestelako arrazoiengaitik entrenamendura joan ezik, entrenatzaileari ahalik eta arinen jakinarazi beharko jako.
- Entrenamendu saio eta partidetan, entrenatzailea izango da taldearen arduradun nagusia.

BARNE-DEKALOGOAK

Eskola Kiroleko ekintzetan parte hartuko daberen kirolari, entrenatzaile eta gurasoek Begoñazpi Ikastolak sortutako dekalogoak sinatu beharko dabe.

Ekimen honen helburu nagusia, Eskola Kiroleko ekintzetan Begoñazpi Ikastolako kirolari, entrenatzaile eta guraso guztiek joko garbia sustatu eta kiroltasunaren aurkako ekintzak eta jarrerak arbuatzea da.



HAUR-HEZKUNTZA

ARTE ETA HIZKUNTZA-PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|-----------------|--------|------------------------|-------------|----------------|
| INGELESA | 4 urte | Astelehen eta eguazten | 13:30-14:15 | Hilean 28,50 € |
| | 4 urte | Astelehen eta eguazten | 14:15-15:00 | Hilean 28,50 € |
| | 5 urte | Martitzen eta eguen | 13:30-14:15 | Hilean 28,50 € |
| | 5 urte | Martitzen eta eguen | 14:15-15:00 | Hilean 28,50 € |
| MUSIKA | 4 urte | Martitzen eta eguen | 13:45-14:30 | Hilean 34,00 € |
| | 5 urte | Astelehen eta eguazten | 13:45-14:30 | Hilean 34,00 € |

KIROL -PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|--------------------------|--------|-----------|-------------|----------------|
| PATINAJEA | 5 urte | Eguazten | 17:00-18:00 | Hilean 14,00 € |
| DANTZA MODERNOAK | 5 urte | Bariku | 17:00-18:00 | Hilean 14,00 € |
| PSIKOMOTRIZITATEA | 5 urte | Astelehen | 17:00-18:00 | Hilean 14,00 € |

(Urtarriletik aurrera)



LEHEN HEZKUNTZA [Lehen Zikloa 1.+2. maila]

ARTE ETA HIZKUNTZA-PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|-----------------------|-------|------------------------|-------------|----------------|
| INGELESA | 1. | Astelehen eta eguazten | 14:00-14:55 | Hilean 29,00 € |
| | 2. | Martitzen eta eguen | 14:00-14:55 | Hilean 29,00 € |
| MUSIKA | 1. | Martitzen eta bariku | 14:00-14:55 | Hilean 40,00 € |
| | 2. | Astelehen eta bariku | 14:00-14:55 | Hilean 43,00 € |
| EUSKAL DANTZAK | 1. | Eguen | 14:00-14:55 | Hilean 21,00 € |
| | 2. | Eguazten | 14:00-14:55 | Hilean 21,00 € |

KIROL -PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|----------------------------|-------|------------------------|-------------|----------------|
| SASKIBALOIA | 1. | Astelehen eta eguazten | 17:00-18:30 | Hilean 29,00 € |
| | 2. | Astelehen eta eguazten | 17:00-18:30 | Hilean 29,00 € |
| FUTBOLA 5 | 1. | Astelehen | 17:00-18:30 | Hilean 14,00 € |
| | 2. | Astelehen eta eguen | 17:00-18:30 | Hilean 29,00 € |
| HEZIKI MULTIJOLASAK | 1. | Martitzen eta eguen | 17:00-18:30 | Hilean 29,00 € |
| | 2. | Martitzen eta eguen | 17:00-18:30 | Hilean 29,00 € |
| PATINAJEA | 1. | Eguazten | 17:00-18:00 | Hilean 14,00 € |
| | 2. | Eguazten | 17:00-18:00 | Hilean 14,00 € |
| ESKUPELOTA PALA | 1. | Eguazten | 17:00-18:30 | Hilean 14,00 € |
| | 2. | Eguazten | 17:00-18:30 | Hilean 14,00 € |
| DANTZA MODERNOAK | 1. | Bariku | 17:00-18:00 | Hilean 14,00 € |
| | 2. | Bariku | 17:00-18:00 | Hilean 14,00 € |



LEHEN HEZKUNTZA [Bigarren Zikloa 3.+4. maila]

ARTE ETA HIZKUNTZA-PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|--|-------|------------------------|-------------|----------------|
| INGELESA | 3. | Astelehen eta eguazten | 14:00-14:55 | Hilean 31,00 € |
| | 4. | Martitzen eta eguen | 14:00-14:55 | Hilean 31,00 € |
| MUSIKA | 3. | Eguen eta bariku | 14:00-14:55 | Hilean 46,00 € |
| | 4. | Astelehen eta bariku | 14:00-14:55 | Hilean 46,00 € |
| EUSKAL DANTZAK | 3. | Martitzen | 14:00-14:55 | Hilean 21,00 € |
| | 4. | Eguazten (neskak) | 14:00-14:55 | Hilean 21,00 € |
| | 4. | Martitzen (mutilak) | 14:00-14:55 | Hilean 21,00 € |
| ANTZERKI TAILERRA
(Ingelesezt) | 3. | Bariku | 14:00-14:55 | Hilean 20,50 € |
| | 4. | Bariku | 14:00-14:55 | Hilean 20,50 € |

KIROL-PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|-------------------------|-------|----------------------|-------------|----------------|
| SASKIBALOI | 3. | Astelehen eta bariku | 17:00-18:30 | Hilean 29,00 € |
| | 4. | Astelehen eta bariku | 17:00-18:30 | Hilean 29,00 € |
| FUTBOLA 5 | 3. | Martitzen eta eguen | 17:00-18:30 | Hilean 29,00 € |
| | 4. | Martitzen eta eguen | 17:00-18:30 | Hilean 29,00 € |
| XAKEA | 3. | Bariku | 14:00-14:55 | Hilean 18,00 € |
| | 4. | Bariku | 14:00-14:55 | Hilean 18,00 € |
| ESKUPELOTA PALA | 3. | Eguazten | 17:00-18:30 | Hilean 14,00 € |
| | 4. | Eguazten | 17:00-18:30 | Hilean 14,00 € |
| DANTZA MODERNOAK | 3. | Martitzen | 17:00-18:30 | Hilean 18,00 € |
| | 4. | Martitzen | 17:00-18:30 | Hilean 18,00 € |



HEZKUNTZA-ZIKLOAK

LEHEN HEZKUNTZA [Hirugarren Zikloa 5.+6. maila]

ARTE ETA HIZKUNTZA-PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|----------------------------------|-------|---------------------|-------------|----------------|
| INGELESA | 5. | Martitzen eta eguen | 13:00-13:55 | Hilean 35,00 € |
| | 6. | Martitzen eta eguen | 13:00-13:55 | Hilean 35,00 € |
| MUSIKA | 5. | Eguazten eta bariku | 13:00-13:55 | Hilean 43,00 € |
| | 6. | Eguazten eta bariku | 13:00-13:55 | Hilean 43,00 € |
| EUSKAL
DANTZAK | 5. | Astelehen | 13:00-13:55 | Hilean 21,00 € |
| | 6. | Astelehen | 13:00-13:55 | Hilean 21,00 € |
| ANTZERKIA
(Ingeleseaz) | 5. | Bariku | 13:00-13:55 | Hilean 20,50 € |
| | 6. | Bariku | 13:00-13:55 | Hilean 20,50 € |

KIROL-PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|-----------------------------|-------|---------------------|-------------|----------------|
| SASKIBALOI | 5. | Eguazten eta bariku | 17:00-18:30 | Hilean 29,00 € |
| | 6. | Eguazten eta bariku | 17:00-18:30 | Hilean 29,00 € |
| XAKEA | 5. | Bariku | 13:00-13:55 | Hilean 18,00 € |
| | 6. | Bariku | 13:00-13:55 | Hilean 18,00 € |
| ESKUPELOTA
PALA | 5. | Eguazten | 17:00-18:30 | Hilean 14,00 € |
| | 6. | Eguazten | 17:00-18:30 | Hilean 14,00 € |
| DANTZA
MODERNOAK | 5. | Astelehen | 17:00-18:30 | Hilean 18,00 € |
| | 6. | Astelehen | 17:00-18:30 | Hilean 18,00 € |



BIGARREN HEZKUNTZA [Lehen Zikloa 1.+2. maila]

ARTE ETA HIZKUNTZA-PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|------------------------------|-------|------------------------|-------------|----------------|
| INGELESA*
(PET B1) | 1.* | Martitzen eta eguen | 14:00-14:55 | Hilean 55,00 € |
| | 2. | Martitzen eta eguen | 14:00-14:55 | Hilean 55,00 € |
| MUSIKA | 1. | Astelehen eta eguazten | 14:00-14:55 | ** |
| | 2. | Astelehen eta eguazten | 14:00-14:55 | ** |
| EUSKAL
DANTZAK | 1. | Bariku | 13:00-13:55 | Hilean 21,00 € |
| | 2. | Bariku | 13:00-13:55 | Hilean 21,00 € |
| FRANTSESA* | 1.* | Astelehen eta eguazten | 13:30-14:25 | Hilean 55,00 € |
| | 2. | Bariku | 13:30-14:25 | Hilean 27,50 € |

KIROL-PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|-----------------------------|-------|---------------------|-------------|----------------|
| SASKIBALOA | 1. | Eguazten eta bariku | 18:30-20:00 | Hilean 29,00 € |
| | 2. | Eguazten eta bariku | 18:30-20:00 | Hilean 29,00 € |
| XAKEA | 1. | Eguazten | 14:00-14:55 | Hilean 18,00 € |
| | 2. | Eguazten | 14:00-14:55 | Hilean 18,00 € |
| DANTZA
MODERNOAK | 1. | Astelehen | 17:00-18:30 | Hilean 18,00 € |
| | 2. | Astelehen | 17:00-18:30 | Hilean 18,00 € |

* INGELESA ETA FRANTSESA

Taldeak mailaren arabera osotuko dira. Sarrera proba irailaren 27an eguerdiko 14:00etan izango da. Ikastaro honek etxean be lan egitea eskatuko dau.

** Ikasleek comboa, musika-tresna zein biak ikasi ahal dabez.

COMBOA: 20 €

MUSIKA-TRESNA: 27 €

COMBOA ETA MUSIKA-TRESNA: 47 €



BIGARREN HEZKUNTZA [Bigarren Zikloa 3.+4. maila]

ARTE ETA HIZKUNTZA-PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|-----------------------|-------------|---|-------------|----------------|
| INGELESA* | 3.(PET B1+) | Astelehen eta eguazten | 14:00-14:55 | Hilean 55,00 € |
| | 4.(FCE B2) | Astelehen eta eguazten | 14:00-14:55 | Hilean 55,00 € |
| MUSIKA | 3. | Astelehen eta eguazten | 14:00-14:55 | ** |
| | 4. | Astelehen eta eguazten | 14:00-14:55 | ** |
| EUSKAL DANTZAK | 3. | Bariku | 13:00-13:55 | Hilean 21,00 € |
| | 4. | Bariku | 13:00-13:55 | Hilean 21,00 € |
| FRANTSESA* | 3. | Martitzen eta eguen | 14:00-14:55 | Hilean 55,00 € |
| | 4. | Martitzen eta eguen | 14:00-14:55 | Hilean 55,00 € |
| EUSKERA*** | 3. | Martitzen, eguen
eta hilean bariku bat | 13:00-14:25 | Hilean 55,00 € |
| | 4. | Martitzen, eguen
eta hilean bariku bat | 13:00-14:25 | Hilean 55,00 € |

Labayruko ALFA II-III eta EGA azterketa bizkaieraz egiteko ikastaroa

* **INGELESA ETA FRANTSESA**

Taldeak mailaren arabera osotuko dira. Sarrera proba irailaren 27an eguerdiko 14:00etan izango da.

Ikastaro honek etxean be lan egitea eskatuko dau.

** **Ikasleek comboa, musika-tresna zein biak ikasi ahal dabez.**

COMBOA: 20 €

MUSIKA-TRESNA: 27 €

COMBOA ETA MUSIKA-TRESNA: 47 €

*** **Euskerako ikastaroak, Labayru Ikastegiko ikastaro ofizialak dira. Atariko proba eta mailaketa-azterketak egongo dira. Ikastaro honeetan, etxean egiteko lana be izango da.**

ALFA III ikastaroa egiteko, ALFA II egina eta gainditua izan behar da.



BATXILERGOA

ARTE ETA HIZKUNTZA-PROGRAMA

| | MAILA | EGUNAK | ORDUTEGIA | PREZIOA |
|--------------------------------------|--|---|-------------|----------------|
| INGELES*
(FCE B2 / CAE C1) | 1. | Astelehen eta eguazten | 15:40-16:40 | Hilean 55,00 € |
| | 2. | Astelehen eta eguazten | 15:40-16:40 | Hilean 55,00 € |
| EUSKAL DANTZAK | Euskal Dantzak egin nahi dabean batxilergoko ikasleek, Gaztedi Dantza Taldeagaz hitz egin beharko dabe. | | | |
| FRANTSESA* | 1. | Astelehen eta eguazten | 15:40-16:40 | Hilean 55,00 € |
| | 2. | Astelehen eta eguazten | 15:40-16:40 | Hilean 55,00 € |
| EUSKERA II-III*** | 1. | Astelehen, eguazten eta hilean bariku bat | 15:25-16:45 | Hilean 55,00 € |
| | 2. | Astelehen, eguazten eta hilean bariku bat | 15:25-16:45 | Hilean 55,00 € |

(Labayruko ALFA II-III eta EGA azterketa bizkaieraz egiteko ikastaroa)

* INGELESA ETA FRANTSESA

Taldeak mailaren arabera osotuko dira. Sarrera proba irailaren 27an eguerdiko 14:00etan izango da.

Ikastaro honek etxean be lan egitea eskatuko dau.

** Euskerako ikastaroak, Labayru Ikastegiko ikastaro ofizialak dira. Atariko proba eta mailaketa-azterketak egongo dira. Ikastaro honeetan, etxean egiteko lana be izango da. ALFA III ikastaroa egiteko, ALFA II egina eta gainditua izan behar da.



IKASLEEN JARRAIPENA

Hezkuntza Ez-Formaleko ekintza guztietan parte hartzen daberen ikasleentzako jarraipena prozesu honen bidez egingo da:

Hileko txostenak: hilean egon diran gorabeherak txosten baten jaso eta ikaslearen tutoreari emongo jakoz. Bertan, etorri ez diran egun, lan eta jarreraren barri emongo da. Gainera, ohar mota bi egongo dira. Bata, berdea, tutoreak umeagaz jarreraren inguruan berba egiteko eta bestea gorria, tutoreak edota ikastolako koordinatzaileak ikaslegaz eta gurasoakaz berba egiteko. Horretaz gain, gogoratu, tutoreagaz izaten dozuezan batzarretan Hezkuntza Ez-Formaleko ekintzen barri be jasoko dozuela.

Gainera, egoera bereziren bat izaten bada, ikastolako koordinatzailea ahalik eta arinen jarriko da zuokaz hartu-emonetan.

Hiruhileko txostenak: Hezkuntza Formaleko txostenakaz batera, ekintza bakoitzean landutako edukiak ebaluatzen dauzan Hezkuntza Ez-Formaleko notak be jasoko dozuez.

Edozein zalantza argitu gura izanez gero, jarri ikastolako koordinatzaileagaz hartu-emonetan.

Hasiera: urriaren 1a. Amaiera: maiatzaren 31.

HARTU-EMONETAN JARTZEKO

Euskal Dantzak: lidfernandez@begonazpi.org

Kirola: landerbeato@begonazpi.org

Euskera: arantzaayarza@begonazpi.org

Frantsesa: eideraznar@begonazpi.org

Ingelesa HH: karmelepereda@begonazpi.org

Ingelesa LH: estibalizborrajo@begonazpi.org

Ingelesa DBH-BATX: mirianansotegi@begonazpi.org

Musika HHI: nereapena@begonazpi.org

Musika LH-DBH: naroasanmillan@begonazpi.org

Edozein zalantza edo iradokizunetarako ikastolako telefono zenbakira deitu: 944 005 300

Hileko kobratuko jatzue.

Norbaitek baja emoten badau, zerbitzua urte osorako hartu danez, jagokon hiruhilekoa eta hurrengoa ordaindu beharko dau.

Adierazitako prezioetan ez da materialik sartzen.

PROGRAMEN AURKEZPENA

Haur eta Lehen Hezkuntza: irailaren 12a.

Hizkuntza eta Arteak: 17:30

Kirola: 18:30

DBH eta Batxilergoa:

DBH eta Batxilergoko programak, ikasturte hasierako batzarretan azalduko dira.


Ekintza honeetan, ikastolako arautegia ezarriko da.



Izena emoteko arauak

Izen-emoteak, plataformako hasiera-orrian dagoan “Jarduerak eta zerbitzuak” klikatuz, egin beharko dira. Kontuan hartu beharrekoak:

- Matrikulak izen-emotearen arabera egingo dira.
- Epez kanpo egiten diran matrikulak, itxarote-zerrendan egongo dira eta aukeren arabera kudeatuko dira.
- Epez kanpoko izen emoteak posta-elektronikoaren bitartez egin beharko dira.
- Zenbait ekintzatan, taldearen beharrianaren arabera, gehiengo eta gitxiengo kopurua egongo da..



Klikatu titulua,
ez marrazkia.

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN IZENA EMOTEKO EPEA

Irailaren 3tik 19ra

DBH ETA BATXILERGOAN IZENA EMOTEKO EPEA

Irailaren 3tik 26ra



HEZKUNTZA EZ-FORMALA
EDUCACIÓN NO FORMAL

2018-2019 IKASTURTEKO HEZKUNTZA EZ-FORMALEKO PROGRAMA



BEGOÑAZPI
IKASTOLA

Jesús Galíndez 15
48004 Bilbao
Tlf: 94 400 53 00
Fax: 94 400 53 01

www.begonazpi.org